

Futbola ♦ Entrenatzaile titulua atera nahi dutenei mintzatu zitzaizkien Azkargorta eta Lillo

Futbol lezioa

Entrenatzaileak ekipo batean daukan garrantziaz aritu ziren goi mailako bi teknikoak



Juanma Lillo, Salva Zaldua eta Xabier Azkargorta, herenegun arratsean Donostian, Kirol Etxean.

Enekoitz Esnaola / Donostia

XABIER AZKARGORTA eta Juanma Lillo. Biak ere gipuzkoarrak (aurrena azpeitiarra eta bigarrena tolosarra), eta biak ere puntako entrenatzaileak. Baina biak ere, gaur egun, ekiporik gabe. Ez, ordea, konferentziarik gabe, han-hemenka dabiltzalako hitz eta pitz. Hitzunak dira biak ere, jario handikoak, eta erraz moldatzen dira jendaurrean, jendeari futbola erakusten. «Jokalaria batek inoiz ez du esan behar dena dakiela. Egutero ikasten da zerbait. Eta entrenatzaileok ere egutero ikasten dugu». Azkargortak botatzen duen hori herenegun arratsean Donostian, Kirol Etxean, Gipuzkoako Foru Aldundiak antolatutako hitzaldian, eta entrenatzaile titulua ateratzen ari diren ikasleei zuzendu zitzaizkien biak.

Biek ere ezagutzen dute zer den titulua ateratze hori. Izan ere, Azkargorta maisu izana da entrenatzaileen eskolan, eta Lillo, maisu ez ezik, ikasle ere bai. «1979an Lilloren irakaslea izan zen Azkargorta», gogoratu zuen Salva Zaldua moderatzaileak.

Hogei urte igaro dira ha-

rrezkero. Azpeitiko Ikastolako irakasle ere bazen or-duan azpeitiarra, eta mutil koxkor bat tolosarra. Egun, lehen esan bezala, puntako teknikoak dira biak; hobeto esanda, bi entrenatzaileak, Azkargortaren ustez «tekniko eta horrelako hitzek ez dutelako balio. Gehiago zehaztuz, gu ez gara futbol entrenatzaileak, futbolariaren entrenatzaileak baizik. Guk pertsonak entrenatzen ditugu, eta hori oso garrantzitsua da». Hori dela eta, entrenatzaileak futbolaz gain, komunikazioaz, medikuntzaz, giza-multzo bat eramaten, programak egiten eta abar jakin behar omen du.

Gauzak ikusten jakitea

Baina, batik bat, entrenatzaile batek gauzarik txikiak ere ikusten asmatu edo jakin behar duela esan zieten ikasleei biek. Eta Lillok anekdota bat kontatu zuen. «Begara: ni ez nintzen [Espainiak] Lehen Mailara iritsi Salamancarekin Urzaizek buruz gol bat sartu zuelako edo ez dakit zer gertatu zelako. Jendea gertaera batzuk txikitzen saiatzen da, gauzak aztertze gaitasun urria duelako. Eta jende ho-


hitz bitan

Neskarik ez: Ari dira neskak pixkana futboleko gero eta gehiago jokaten, arbitro ere ari dira bakarren batzuk, baina nekez ikusiko dugu emakumerik entrenatzaile: herenegun Kirol Etxean ehun lagun artetik %95 entrenatzaile titulua atera nahian dabiltzanak ziren, aurkezlea baino ez zen neska.

rrek jakin beharko luke nire entrenatzaile ibilbidea ez zela hasi Salamanca Lehen Mailara igo nuenean. Ez. 31 urte nituen orduan, baina, aurretik, 27 urterekin, jada banuen Lehen Mailako eskaintza bat: Burgosera joatekotan egon nintzen. 28rekin, berriz, Valladolidera joateko izan nintzen. Eskaintza haiek izan aitzin, baina, 21 urterekin, Hirugarren Mailan nengoan entrenatzaile. Baina aurretik, 16 urterako, Tolosako gazte-mailako bi ekipo entrenatzen nituen; biak batera! Eta hau guztia gertatu da ni jokalaria nintzela pertsona on batek


hauxe esan zidalako: 'Zuk, Juanma, ez duzu balio jokalaria izateko'. Baina hark berak esan zidan giza-talde bat zuzentzeko balio nuela. Pertsona haren gauzak ikusteko dohainak markatu zuen nire bizitza».

Erabakiak hartzea ere garrantzitsua ei da. «Erabakirik hartzen ez duen batek ez du hankarik sartzen», zioen Azkargortak. «Jokalaria asko ohituta daude agindutakoa betetzera, eta haietako askok, gainera, 300 milioi pezeta irabazten dituzte urtean», esan zuen Lillok. Eta horren harira, gertaera bitxi bat kontatu zuen Azkargortak. «Japonian nengoela, Yokohama Marinos entrenatzen, behin partidu batean gure eskuin lateralari nire ondora hurbiltzeko esan nion, gauza bat esan behar niolako. Hala behintzat, etorri zen, eta niri begira egon zen ni hitz egiten ari nintzenean. Baina halako batean beste ekipoko ezker aurrelaria han pasatu zen gure paretik aurrealdera, eta gure lateral hark han segitu zuen niri begira, ni utzi eta aurrelariaren atzetik lasterka joan beharrean. Japoniarrek halakoxe kultura eta gizarte



XABIER AZKARGORTA

«Gu ez gara futbol entrenatzaileak, futbolariaren entrenatzaileak baizik. Guk pertsonak entrenatzen ditugu. Hori garrantzitsua da»



JUANMA LILLO

«Egoera txarretan sinesmenetik ateratzen dut indarra. Pasioa dudalako. Ideia batzuekiko konpromisoa eduki behar da»

mota dute, men egiten dute beti, eta jokalaria hura ez zen gauza izan erabaki hori hartzeko».

Gauzak ikusi, aztertu, gogoeta egin eta ondoren, ideia batzuk izatea ere garrantzitsua dela deritzo Lillok, norberak norabide bat izateko. «Txarrerako zein onerako. Adibidez, nik behin Tenerifen hamabi mila lagun izan nituen 'Lillo joan zaitez' oihu egiten. Beste behin, aldiz, Salamancan nire aldeko 75 metroko pankarta bat jarri zuten jarraitzaileek estadioan. Egoera txarretan sinesmenetik ateratzen dut indarra. Pasioa dudalako. Eta, badakizue, itsua da pasioa. Ideia batzuekiko konpromisoa behar da».

Hori guztia, gauzak hobetzeko. «Baina, gaur egungo futboleko zuek imajinatzen al duzue entrenatzaile bat hau esaten jokalaria bati: 'Aizu, bihar, goizean besteekin entrenatzeaz gain, etor zaitez entrenatzean ere, baloiaren kontrolan zazpi huts egin zenuelako aurreko partiduan eta hori hobetu beharra duzulako'. Imajinatzen?», galde-tu zuen Azkargortak.

GARI GARAIALDE